



Beasaingo Udala

Beasainen, bi mila eta hemezortziko urtarilaren hogeita bian

BILDURIK

Alde batetik, BEASAINGO UDALA Aitor Aldasoro Iturbe, Alkate-Lehendakaria jaunak ordezkaturik, Beasaingo Udalaren Alkate-lehendakaria, Toki araubidearen oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21. artikulua.

Bestetik, INTXAURPE elkarteak (N.I.F.: G20913356), Asier Iriondo Eguren jn. (NA 72448731L) Intxaurpe elkartearen lehendakariak ordezkaturik, 2018ko urtarilaren 14ko batzar orokorrean hartutako erabakiaren arabera.

BALDINTZAK

LEHENENGOA.- Intxaurpe elkarteak 2018. urtean ondorengo jarduerak antolatu eta ordaintzeko konpromisoa hartzen du.

- **Negua**
 - Otsailak 3. EHko 10. Mus txapelketa
 - Afaria eta trikitia
- **Udaberria**
 - Martxoaren 24an Mahaingurua: Euskal Herria etorkizun laburrean
 - Bazkaria eta Anje Dualde
- **Uda**
 - Uztailaren 21ean, Argazki tailerra (Ekaitz Filarmendi)
 - Abuztu-irailean. Argazki lehiaketa
- **Udazkena**
 - Azaroaren 17an .1. sektorea gaitzat hartuta, horma irudia eta mahaingurua


BIGARRENA.- Beasaingo Udalak jarduera horiek antolatzeko **5.900€** emanaz lagunduko du. Ordainketa zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan eguneratuta dagoela kreditatu ondoren, urtean bi aldiz egingo dira likidazioak 3.900 € apirilean eta 2.000 € urrian.

Udalak ematen duen diru-laguntza bateragarria izango da helburu berdinetarako elkarteak jasotzen dituen beste laguntzekin. Jasoz gero, ezagutu bezain pronto, Udalari jakinaraziko dio eta horrek hitzarmena berrikustea ekarriko du.

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, INTXAURPE ELKARTEAK egiaztatu beharko du ordaindu beharreko zergak, gizarte-segurantzakoak barne, egunean dituela.

HIRUGARRENA.- Intxaurpe elkarteak dagokio hitzarmendutako jarduerari beharrezkoa den publizitatea egitea eta Beasaingo Udalaren laguntza (eta logotipoa) aipatzea beraiek antolatutako jarduerari buruz egiten dituzten prentsarako ohar guztietan. Era berean, leku duin eta ikusgarrian aipatu beharko dira Beasaingo Udalaren laguntza, kartel, aldizkari, esku-egitarau, e. a., notatutako zabalpenak erabiltzen direnean.

 **intxaurpe**
Elkartea
20200 Beasain (Gipuzkoa)
N.I.F. G20913356
Tel. 943 164 146
intxaurpeelkartea@gmail.com



LAUGARRENA.- Hizkuntz Politikako irizpideak jarraituz, idatziz sortzen diren material guztietan (kartel, diptiko, eskuliburu, apunte etab.) euskarari lehentasuna emango zaio eta materialen zirriborroak inprimategira eraman aurretik Udaletxera ekarriko dira testuen hizkuntz egokitasuna eta proportzioen zuzentasuna ziurtatzeko. Aurkezpenetan eta antzekoetan ere euskarak lehentasuna izango du.

BOSGARRENA.- Intxaurpe elkarteak, publizitate bidez finantzatzeko dituen diptiko edo beste edozein inprimakiren kasuan, dendariak euskarazko publizitatea eros dezaten ahaleginduko da eta, bestela, publizitatea ele bietara jasotzeko ahalegina egiteko konpromisoa hartzen du.

SEIGARRENA.- Udalak hizkuntzari dagozkion arlo guztietarako bere laguntza eta lankidetzak eskainiko ditu.

ZAZPIGARRENA.- Beasaingo Udalak beharrezkoak diren Udal zerbitzuak eskaintzen jarraituko du, esandako jarduerak ongi burutuko direla ziurtatzeko eta Kultura Batzordeak beren antolaketa gainbegiratu ahal izango du.

ZORTZIGARRENA.- Beasaingo Udalak Intxaurpe elkarteak aurkeztutako kontuan hitzarmendutako zenbatekoa sartuko du jarduera burutu baino lehen, eta Intxaurpe elkarteak urtea amaitu baino lehen udalaren esku utzi beharko du ondorengo dokumentazioa:

- a) **Jardueren azalpen memoria, bertan ekitaldi guztietan egindako hizkuntz erabilpenaren berri zehatza eta arrazoitua eman.**
- b) **Fakturak edo eskuratutako dokumentuak, ahal bada originalak, edota fotokopiak, egindako gastuen egiaztagarri.**
- c) **Idatziz sortutako materialaren ale bana aurkeztu beharko ditu.**

BEDERATZIGARRENA.- Intxaurpe Elkarteak bere partaidetza beharrezkoa den beste edozein ekitalditan lagunduko du eta kultur mahaian parte hartuko du.

HAMARGARRENA.- Hitzarmen hau betetzeari dagokion guztirako, Intxaurpe Elkarteak, Alkatetzak horretarako jartzen duen edo dituen pertsona edo pertsonekin izango ditu zuzeneko harremanak.

HAMAIKAGARRENA.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna babesteko klausula. Elkarteek berdintasuneko irizpideak (Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta hau aldatzen duen otsailaren 16ko 3/2012 Legea) kontuan hartuko dituzte bai elkartearen barruan bai eta sustatzen dituzten proposamenak gauzatzeko garaian ere.

HAMABIGARRENA.- Datu pertsonalak babesteko klausula.

- A. 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO) ezarritakoa betez, alegia, Datu Pertsonalak Babestekoan, alde bakoitzak erasandakoen baimen informatua lortzeko arduradun izango du, hain zuzen ere, hitzarmen honen xede diren



Beasaingo Udala

informatua lortzeko ardura izango du, hain zuzen ere, hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean beharrezkoak diren beren datu pertsonalen tratamendurako. Era berean, alde bakoitzak hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean erabilitako datu pertsonalen konfidentzialtasuna bermatzeko ardura izango du.

- B. Elkartek Beasaingo Udalari datu pertsonalen lagapena eginez gero, uneoro, beren datu pertsonalak lagatzeko erasandakoen baimen informatua duela bermatu beharko du.
- C. Alde bakoitzak egin litzakeen indarrean dagoen datuak babesteko araudi honen ez-betetzeetatik letozkeen ardurak bere gain hartuko ditu.

HAMAHIRUGARRENA.- Aurreko edozein baldintza behar bezala ez betetzeak hitzarmen hau berrikustea ekarriko du.

HAMALAU GARRENA.- INTXAURPE elkarteak (N.I.F.: G20913356), baimena ematen dio espresuki BEASAINGO UDALARI, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentutik eskura dezan, hitzarmen honetan aipatzen den ORDAINDU BEHARREKO ZERGAK EGUNEAN IZATEAREN baldintza betetzen duela egiaztatzen duen agiria:

☒ BAI

☐ EZ

Eta esandako guztiarekin ados egonik, bildutakoek dokumentu hau urte baterako sinatzen dute bikoizturik, goibururen aipatutako data eta lekuan.



Antzeran auzoa - 19
20200 Beasain (Gipuzkoa)
IFK: G20913356
Tel.: 943 164 146
intxaurpeelkartea@gmail.com



